

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ipurua

Data: 2015/11/05

Saila	Laburpena	Erantzuna
Alkatetza	Mojen konbentuaren proiektuaz galdetu du.	Esparruak erabilera publikoko kirol-ekipamendu kalifikazioa du. Partehartze-prozesu bat jarriko da abian zehazteko Eibarren zer beharizan dauden Kirolari dagokionez, horrela erabakitzeko zer jarduera egingo den esparruan.
Alkatetza	Galdetu dute zer erabilpen emango zaien futbol zelaiko obrako lokal berriei.	Eibar Kirol Elkartearen asmoa da auzo-elkarteek erabiltzea Ipurua futbol-zelaiko lokal berriak.
Hirigintza	Kexatu da eskailera asko dagoela Fray Martín Malleako 1. eta 3. zenbakietako atarrietako sarbideetan.	Desnibel handia dago eta ezin dira ordezkatu eskailerak malda batengatik. Mogleko 17, 18, 19 eta 20 zenbakietara(Fray Martín Mallea kaletik) iristeko irisgarritasuna aztertu da eta ondorioztatu da aukera hoberena kale horretan espaloi berri bat egitea dela eskaileren zabalera murriztuz eta petrila kenduz. Espaloi honek kale hontako 3 zenbakirako irisgarritasuna ere hobetuko du. Egazelaiko urbanizatze lanekin, egoera zerbait hobetu da bertatik pegoretara sartzeko aukera dagoelako.
Obrak	Sarbide bat eskatu du Romualdo Galdosetik Argatzako Jardiñetara.	Azterketa bat egin da eta egingo liratekeen arrapalek ez lukete egungo irisgarritasun araua beteko. Eskaera egin duenarekin bilera bat egiteke dago.
Obrak	Galdetu dute Aizarnako orubean aparkaleku bat eraikitzeko proiektuaz.	Proiektua idazten ari da eta datorren urtearen hasieran egongo da amaituta. Obrak aurrekontuaren arabekoak izango dira.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ipurua

Data: 2015/11/05

Saila	Laburpena	Erantzuna
Obrak	Kexatu da asfaltatu gabe dagoela San Kristobaleko malda, 9aren alboan.	Nahiz eta aurten asfaltatzeko aurreikuspena zegoen, azkenean, ezin izan da egin Gipuzkoako Urak lan batzuk egingo dituelako eremu horretan 2017 urtearen hasieran. Hori dela eta, ingurua lan hauek amaitzen direnean asfaltatuko da.
Obrak	Kexatu da zikin dirudiela Jazinto Olabe plazatxoak eta zorua oso irristakorra dela plazatxoa bustita dagoenean.	Auzokideek aukeratu zituzten kolore biziak plazatxoaren zorurako, eta horiek kolore ilunek baino zikinago dirudite. Gainera, hainbat proba tekniko egin ziren irristakortasuna aztertzeko, eta gainditu egin zituen.
Obrak	Kexatu da San Kristobalerako sarbideak txarrak direla.	Orain dela gutxi, Udalak 2016 urtearen erdialdera enkargatutako irisgarritasunaren azterketa jasotzen duen dokumentua eman zaigu. Bertan, lanen balioztatze ekonomikoa agertzen da eta lanen gauzatzea aurrekontuen arabera izango da.
Obrak	Salatu du egoera txarrean dagoela Ubitxa 6aren eta San Kristobal 21aren arteko plazatxoa.	Eremuaren irisgarritasuna hobetzearekin batera, plazatxoaren baldintzak aztertuko dira beren osotasunean.
Obrak	Galdetu dute zergatik ireki den zanga bat San Kristobaleko galtzadan duela gutxi.	Arazoa konponduta dago jada. Hasiera batean, enpresa sustatzaileak argindar-sarea hobetu du, eta, aldi berean, Gipuzkoako Urak ur edangarriaren sarea hobetu du Polonia Etxeberria kalearen sarrerako aldaparaino. Halaber, galtzada asfaltatu da.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ipurua

Data: 2015/11/05

Saila	Laburpena	Erantzuna
Udaltzaingoa	Kexatu da espaloiak txakur-gorotzez beteta daudela San Kristobaleko 25 eta 27aren parean.	Txakurren batekin doan norbaitek haren gorotzak hartzen ez dituela ikusten denean, salaketa jartzen zaio.
Udaltzaingoa	Abisatu du ispilua eta pibote bat falta direla Indalezio Ojanguren 2ko garajeko irteeran.	Ispilua eta pibotea jarrita daude jada.
Udaltzaingoa	Kexatu da motor bat udatik aparkatuta dagoela San Kristobal 11ren parean.	Udaltzaingoiari eskatu zitzaion jabearekin hitz egiteko motorra mugitu dezala agintzeko.
Udaltzaingoa	Salatu du grafiti asko dagoela San Kristobal alde osoan.	Grafitiak egiten ari den norbait identifikatzen denean, zehapen-espeditzea irekitzen zaio.
Udaltzaingoa	Kexatu da autoak bigarren ilaran egoten direla Komat enpresaren ondoan (Indalezio Ojangurenen atzealdean).	Udaltzaingoiak kontrolatuko du egoera hori, ikusteko ea ibilgailuek oztopatzen duten beste ibilgailuak edo oinezkoak igarotzea.
Udaltzaingoa	Abisatu du kamioiren batek deskargatu ohi duela 7:00etan Romualdo Galdos kaleko galtzadaren erdian.	Aginduak eman dira arazo hori kontrolatzeko.
Udaltzaingoa	Abisatu du Indalezio Ojangureneko garajeko pibotea falta dela.	Pibotea jarrita dago jada.
Udaltzaingoa	Kexatu da lotu gabeko txakurrak daudela Argatxa Jardiñetan, eta gainera gorotzez betetzen dutela ingurua.	Aginduak eman zaizkio Udaltzaingoiari arazo hori kontrolatzeko; gainera, txakurren batekin doan norbaitek haren gorotzak hartzen ez dituela ikusten denean, salaketa jartzen zaio.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ipurua

Data: 2015/11/05

Saila	Laburpena	Erantzuna
Zerbitzuak	Edukiontzi gehiago eskatu dute Santaines eta Romualdo Galdoseko aldean, hangoak beteta egon ohi dira eta. Edukiontziak gehiagotan garbitzea ere eskatu dute.	Eskaera aztertu ostean, ondorioztatu da ez direla edukiontzi behar eremu horretan eta dagoeneko konponduta dago hauen garbitasun arazoa.
Zerbitzuak	Kexatu da argi gutxi dagoela Eroskiren aldean.	Ipuruako Santaineseko argiztapenaren udalaren parte aztertuko da, aparkalekua argizatzea Eroskiri baitagokio.
Zerbitzuak	Salatu du bide publikoan argi gutxi dagoela futbol-zelaiaren inguruetan.	Futbol-zelaiaren aurrealdeko argiak jarri aurretik egin zen kexa hau; argi horiek jarrita daude dagoeneko, eta ingurua askoz hobeto argizatuta dago. Dena den, nahiz eta gaur egun, Eibar Kirol Elkarrekin zuzenean kudeatzen duen argi horiek noiz piztu eta noiz itzali, argiteria publikoaren sarera konektatu dira, horrela udalerriko gainerako argi-publikoekin erabiltzen diren irizpide berberekin pizteko eta itzaltzeko.
Zerbitzuak	Kexatu da egoera txarrean dagoela Indalezio Ojangureneko espaloia (baldosak apurtuta).	Baldosa apurtuak ibi edo pasabide batean daude, eta hura mantentzea jabeen ardura da, Hiri Izaerako Bide Publikoen Erabilera, Trafikoa, Zirkulazioa eta Segurtasuna arautzen duen Udal Ordenantzaren 43. artikularen arabera.
Zerbitzuak	Abisatu du zikin dagoela Romualdo Galdóseko ispilua.	Dagoeneko garbitu da.
Zerbitzuak	Eskatu du San Kristobal 27aren pareko eserlekuak margotzeko.	Eserlekuak margotuta eta lixatuta daude jada.
Zerbitzuak	Kexatu da Elgetarako errepideko baranda herdoilduta dagoela.	Konpondu da eta pintatu da Xania tabernaren parean dagoen baranda osoa.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ipurua

Data: 2015/11/05

Saila	Laburpena	Erantzuna
Zerbitzuak	Kexatu da ur beltzen usaina dagoela San Kristobal 12aren aldean.	Lan hau Ur Zerbitzuari dagokio eta berriro ere eskatuko zaio datorren urteko aurrekontuetarako (2017 urterako) kontutan izan dezan.
Zerbitzuak	Argatzako Jardinetan lokal bat duen pertsona bat kexatu da ura etengabe sartzen dela futbol-zelaiko obra egin denetik.	Hodi guztiak garbitu ziren, eta arazoa konpondu zen. Kexatu zen pertsonari proposatu zitzaion erreklamazioa aurkezteko, eragindako kalteak konpontzeko aurrekontua erantsita (urrian aurkeztu zuen erreklamazioa).
Zerbitzuak	Eskatu du baranda bat jartzeko Romualdo Galdos 22aren pareko bihurgunean.	Romualdo Galdoseko baranda abenduan jarri zen, Gabonak hasi baino lehentxeago.
Zerbitzuak	Kexatu da baldosak lirdingaz estalita daudela Juan Amtonio Mogel 20aren parean.	Lan-agindua eman zen falch makina eremu horretan pasatzeko, eta, hala, lirdingaren arazoa konpondu zen. Hala ere, Mankomunitateak, ikuskapen-bisita egin ondoren, esan digu arazoa lirdinga baino areago zela baldosa berrien eta zaharren artean alde handia nabaritzen zela, eta horrek higadura-kontua delako itxura ematen duela.
Zerbitzuak	Eskatu du Argatzako Jardinetako zuhaitzak inautseko.	Argatzako zuhaitzak nola dauden ikuskatuta, inausi egin dira inausi beharrezkotzat jo diren zuhaitz guztiak. Saneatuta geratu dira eremuko zuhaitzak.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ipurua

Data: 2015/11/05

Saila	Laburpena	Erantzuna
Zerbitzuak	Eskatu du Argatxako Jardiñetako inguruko eserlekuak margotzeko.	Ikuskapena egin ondoren, teknikariek egiaztatu digute eserlekuek lixatu eta margotzeko lanak behar dituztela. Lan hauek 2016 urte amaieran edo 2017 urte hasieran egingo dira.
Zerbitzuak	Kexatu da ura sartzen dela Indalezio Ojangureneko garajeetan.	Ura sartzearen ondorioz eragindako arazoak ez dira Kexa-programaren bidez bideratzen, baizik eta horretarako berariaz dagoen prozeduraren bidez; horregatik, arazoa konpontzeko espediente bat ireki da.
Zerbitzuak	Esan du estolda-zuloak estuak direla Indalezio Ojangureneko parkean.	Enpresa bat kontratatu da Indalezio Ojangureneko plazatzoko estolda-zuloak aldatzeko. Lanak egin dira dagoeneko.
Zerbitzuak	Kexatzen da oso zikin geratzen dela Indalezio Ojangureneko ingurua futbol partidak dauden egunetan.	Mankomunitateari abisua eman zaio kontuan har dadin noiz duen partida Eibarrek eta garbiketa berezia egin dadin egun horietan. Mankomunitateak egiaztatu digu otsailatik hona errefortzu hori egiten ari dela, eta adibidetzat jarri digu urtarrilaren 30ean jardun zen era. Eibarrek 18:15ean jokatu zuen, eta pertsona bat kontratatu zen 17:30etatik 21:00etara, zelaira sartzeko zein zelaitik irteteko uneak hartzeko.